

Merkataritza elektronikoak gora egin du euskal enpresetan 2011n, enpresa kopuruari nahiz zenbateko ekonomikoari dagokionez

Merkataritza elektronikoak gora egin du salmenten alorrean (% 20,0) nahiz erosketen alorrean (% 25,8), negozio-bolumena 10.530,4 eta 6.649,3 milioi euro izanik, hurrenez hurren

Euskal Autonomia Erkidegoko merkataritza elektronikoak gora egiten jarraitzen du merkataritza elektronikoan parte hartzen duten enpresen ehunekoari dagokionez (portzentajeazko +2,2 puntu) eta kopuru ekonomikoei dagokionez, Eustatek landutako datuen arabera. 2011. urtean sorturiko negozio-bolumena, sarearen bidez edo beste sistema elektroniko batzuk baliatuta, hala nola e-maila, datu elektronikoen trukea (EDI) eta abar, 10.530,4 milioi eurora iritsi zen egindako salmenta elektronikoei dagokionez eta 6.649,3 milioira egindako erosketei dagokionez.

Zenbateko horiek, iazko datuekin alderatzen baditugu, ikus dezakegu % 20,0ko igoera dagoela merkataritza elektronikoaren bidezko salmenten kasuan EAEko enpresei dagokionez, eta % 25,8ko igoera sistema beraren bidez egindako erosketen kasuan.

1. taula: Merkataritza elektroniko bidez egindako erosketak eta salmentak, lurraldearen eta enplegu-geruzaren arabera

	Erosketak (*)			Salmentak (*)		
	2010	2011	Δ 11 / 10	2010	2011	Δ 11 / 10
Euskal AE	5.284,8	6.649,3	25,8	8.773,6	10.530,4	20,0
Lurralde historikoa						
Araba/Álava	782,1	938,6	20,0	3.161,4	3.699,0	17,0
Bizkaia	2.889,8	3.642,2	26,0	3.141,8	3.671,7	16,9
Gipuzkoa	1.612,9	2.068,5	28,2	2.470,4	3.159,7	27,9
Enplegu-geruza						
0 - 9	1.764,5	2.012,7	14,1	1.528,5	1.943,7	27,2
≥ 10	3.520,3	4.636,6	31,7	7.245,1	8.586,7	18,5

(*) Euroak, milioikotan

Iturria: EUSTAT. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta (IGI)-Enpresak

Balio absolututan, lurralde historikoa kontuan hartzen badugu, Bizkaia nabarmentzen da erosketetan, baina salmentei dagokionez Araba eta Bizkaia nabarmentzen dira orain ere. Nolanahi ere, Gipuzkoa da azken urte honetan gehien igo dena portzentzualki, bai erosketei dagokionez, baita salmentei dagokionez ere, kasu horretan bereziki. Establezimenduen tamaina kontuan hartzen badugu, ikusiko dugu 10 enplegatu edo gehiagoko establezimenduak direla zenbateko nagusiak dituztenak merkataritza elektronikoa erabiltzeari dagokionez.

Merkataritza elektronikoa parte hartzen duten Euskal Autonomia Erkidegoko enpresen ehunekoari dagokionez, enpresa kopurua portzentajezko 2,2 puntu igo da 2011n, eta gaur egun % 17,3 da. Proportzio hori erosketak egiten dituzten enpresengatik da batez ere, % 16,1, eta gutxiago salmentak egiten dituztenengatik: % 4,1.

Zenbatekoei dagokienez, salmenta elektronikoen kopurua erosketena baino handiagoa den arren, ikus daiteke bide elektronikoak erabiliz erosten duten enpresen kopurua bitarteko hori bera erabiliz salmentak egiten dituzten enpresen kopurua baino askoz handiagoa dela.

2. taula: Merkataritza elektronikoa egiten duten establezimenduen bilakaera %

	Establezimenduak guztira										
	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011
Salerosketa elektronikoa	3,0	4,4	5,1	7,7	10,5	12,8	15,3	15,0	14,9	15,1	17,3
Erosketak	2,7	3,6	4,3	6,9	9,6	11,4	14,1	13,9	13,8	14,2	16,1
Salmentak	0,4	1,3	1,4	1,7	1,9	2,9	3,6	3,4	3,4	3,9	4,1
Erosketen gaineko (*)	9,6	11,4	17,4	15,2	15,5	18,2	20,7	22,6	24,9	28,1	30,8
Salmenten gaineko (*)	9,9	16,1	20,6	22,0	24,6	24,4	23,1	26,9	32,5	38,6	39,3
10 langile edo gehiago											
Salerosketa elektronikoa	6,4	10,0	10,9	13,6	19,5	20,4	24,0	22,2	23,7	23,1	24,9
Erosketak	5,1	8,3	8,7	11,2	17,3	17,7	21,4	19,1	20,2	20,3	21,4
Salmentak	1,8	2,8	3,7	4,2	5,1	6,4	7,8	8,0	8,0	8,5	9,8
Erosketen gaineko (*)	4,6	10,6	9,6	12,1	10,3	12,6	15,8	15,3	20,3	24,6	30,5
Salmenten gaineko (*)	12,7	13,4	15,5	15,0	19,4	21,7	31,5	28,6	34,2	38,4	40,9


(*) Merkataritza elektronikoa egiten duten establezimenduetan, erosketa eta salmenta guztien gaineko erosketa eta salmenta elektronikoen batez besteko %

Iturria: EUSTAT. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta (IGI)-Enpresak

Kalkulatzen da merkataritza elektronikoa egiten duten 31.000 establezimendu daudela Euskal Autonomia Erkidegoan. Establezimendu horietan, kalkulatzen da prozedura hori erabiliz egiten dituzten erosketak % 30,8 direla guztizko erosketen gain, eta salmentak, aldez, % 39,3 guztizko salmenten gain.

Zifra horiek aldatu egiten dira enpresen tamaina kontuan hartzen bada. Horrela, 10 edo enplegatu gehiagoko enpresen artean, % 24,9k egiten du merkataritza elektronikoa, iazkoarekin alderatuta portzentajezko 1,8 puntu gehitu eta gero. Segmentu horretan ere nagusitasun handia erakusten dute erosketa elektronikoa egiten dituztenek, % 21,4 baitira, eta pisu txikiagoa dute bide berak baliatuta salmentak egiten dituztenek, % 9,8, nahiz eta biak portzentajezko 1,1 eta 1,3 puntu igo diren, hurrenez hurren.

1. grafikoa: 2011eko salmenta elektronikoa, erabilitako bitartekoaren arabera (%)




Iturria: EUSTAT. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta (IGI)-Enpresak

Erosketa elektronikoak egiteko erabili den bitartekoari dagokionez, % 42,3 posta elektroniko (e-maila) bidez egin da, % 30,5 web-orriaren bitartez eta gainerako % 27,2a EDI bidez eta beste sare batzuen bidez. Salmenta elektronikoei dagokionez, bestalde, % 49,4 EDI bidez eta beste sare batzuen bidez egiten da, % 29,4 posta elektroniko bidez eta % 21,2 web-orriaren beraren bidez.

2011. urtean merkataritza elektronikoan salmentek helburu izan duten bezero motari dagokionez, salmenta elektronikoen guztizkoaren zati handi-handiena, % 86,3, beste enpresa batzuetara bideratu da (B2B deituriko merkataritza), % 12,7k kontsumitzaile partikularrak izan ditu hartzaile (B2C) eta gainerako % 1,0a beste xede batzuetan banatu da, hala nola Administrazio Publikoak (B2G).

2. grafikoa: 2011eko salmenten helburua, bezero-motaren arabera (%)



Iturria: EUSTAT. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta (IGI)-Enpresak

Informazio gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia kalea, 1, 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945-01 75 00 Faxa: +34-945-01 75 01 E-maila: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Juan Luis López Gonzalez

Tel.: +34-945-01 75 08 Faxa: +34-945-01 75 01

Euskal AEko Informazioaren gizarteari buruzko inkesta (IGI enpresak); prentsa ohar gehiago

Euskal AEko Informazioaren gizarteari buruzko inkesta (IGI enpresak); datu-bankua